

Iraurgi-Urkiola ibaien bateratzea



Ingurumen-garrantzia

Iraurgi eta Urkiola ibaien artean dago Presazelai eremua. Bertako basoan hauexek aurkituko ditugu: pagoak (*Fagus sylvatica*) eta haritzak (*Quercus robur*). Ibaien ondoan ibar baso

bikainean ditugu: haltzak (*Alnus glutinosa*), eta lizarrak (*Fraxinus excelsior*). Ibai tarte honetan bi erreken ura oso kalitate handikoa da. Horregatik habitat ezin hobea

da espezie baliotsu ugarirentzat, besteak beste, urtxori gorria (*Alcedo atthis*), igaraba (*Lutra lutra*) eta ur-ipurtatsa (*Mustela lutreola*).



URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1,5 km

⌚ 30 min | 🚶



Udalerria:
Otxandio
Hurbileko herria:
Mekoleta



Ibaiak:
Iraurgi eta Urkiola



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



↑ 556 m ↗ 13 m
↓ 548 m ↘ 14 m



**IRAURGI -
URKIOLA IBAIEN
BATERATZEA**

Iraurgi-Urkiola ibaien bateratzea



Non dagoen eta nola heldu

Iraurgi ibaia Bizkaiko Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko koadrantean dago, Durangaldea eskualdean, Otxandio udalerriko Mekoleta inguruan.

Otxandiotik hasiko gara Barazar mendatetik datorren BI-3542 errepidetik.

Herritik kilometro batera dagoen Presazelai eremua izango da gure abiapuntua. Urkiola ibaiaren urtegitik izena hartu duen Presazelaiko aparkalekutik Iraurgi ibaiaren ezker izarrean zehar doan bidexka hartu behar dugu, Urkiola ibaiarekin topo egin arte.

Ingurumariak oso atseginak dira, batez ere, haritzak eta ibar landareak dira-eta, haltzak, adibidez. Kable elektrikoek eragindako soilgune bat zeharkatuko dugu Iraurgi eta Urkiola ibaiak bat egin arte.

Handik aurrera ibaiaren pare doan bidexka bati jarraituko diogu bostehun bat metro Mekoleta errotara heltzeko.

Lehentxeago, uraren soinuek salatu digute ur-jauziaren kokagunea.

Handik, bidexkari jarraiki, berriro zeharkatuko dugu lehengo soilgunea, eta hariztian barna, Presazelaia. helduko gara.

Edozein urtarotan egin daitezke bisitaldia.

Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Iraurgi-Urkiola ibaien bateratzea



Iraurgi-Urkiola ibaien bateratzea

